




ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA

AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

III Urtea	1921'ko	Azaroa	35 Zenbakia
-----------	---------	--------	-------------

ILEN ILEBETEA



in... Dan... Din... Dan...

—¿Zer da au? Ilen ezčila.

Ilen ezčila geldi - geldia, ilun- iluna entzun da gure erietan.

Uda alaia bere argitasun pozgariakin joan zaigu. Iñoiz gutxiten bezalako uda-ondoa egin digu, baño bere gau gero ta luzegoak, gero ta otzagoak kendu die gure zuaz-tiei beren ezetasun begiragaria. Orifü dira beren ostoak, goibeldu da zeru-urdiña, erauntsiak erauntsien gañean datoz, ipaf beltzak zuaitz-osto oriak, bere afean arturik, pilekan deramazki bide baztafetara ta safi edo laxtef gure oianak beltzez jantziko dira. Gure inguruko gauza guztiak eta il ezki-len ots ilunak gero baiñen bañundutzero ta otoitzara deitzen gaifuzte.

Din... Dan...

Il da zioten egun batez, ezkiñ oiek berak. Il da, atzo afoak bezin-musu zuri-gofiak ziñun gaxtetxo ura. Igartu da lorea ta erori da lufera... Ofa zure bizia!

Din... Dan... Il da, zioten beste egun batez, atzo mendietako pago ede-fenak baño tentegoa zan gaxte azkar, bizkoñ, sendoa; eriotzaren ipaf aize beltzak jo du gogorki ta erori da zuaitza... ofa ilik gaxtea... Ofa zer dan gizona!...

Din... Dan... *Il da*, zioten beste bein, betiko bizileku atsegintsua egi-ñik zeukala ematen zuan gizona, il da guziak mendean nai ziñun ura il da, ifiori begiramendurik etzion afoa; odei afoena bezela ezereztu da bere afo-keria... Din... Dan... Ba-deramate lurpera... Onela ondatzen da luferko afo-keria.

Din... Dan...

Illebate guzti ontako din... dan... luzeak irudi zaizkit ilen abots negafer-zkoak, guri deiezka daudenak.

Din... Dan... *Oroi*, oroi zaitez, dio batendako; oroi zaife zein maife zindudan of zure ondoan nengoan afean, oroi zaife zurekin izan nuan biotz onaz, oroi zaife egin nizkitzun mesedetaz, eman nizkitzun limosnetaz; oroi zaife zuregatik artu nifun neke ta ez-beafaz, oroi zaite eman ziñezkidan azkeneko itz aietaz.

Din... Dan... *!Ai ene!* Emen nago orain zure laguntza beafean. Kupifu zaifez nitaz! *!Ai ene!* Efuki nitaz adiskide ori berenik...

Din... Dan... *!Ai ene!* diote beste batzuek; nere egunik txoroenetan, nere erakerien efdian, bizitzaren efdian moztu nindun eriotzaren ifaiak, efgelkerifan asterako otsegin zidan nere Jaunak eta ordun nai ez nuana, orain nai nuke ta eztezaket.

Din... Dan... *Oroi* zaife neri atzo gertatua, bial gerta litzaizukela ta efuki zaitez nitaz.

Din... Dan... *!Ai ene!* Efuki zaifezte gutaz: zuek nai izan ezkeroz atera edo iften gatzaikezute negaf mifnezko ilunbeta neketsu ontatik...

Oroi zaifezte zuen otoitz edo orazio ta eskeaz askatzen zaizkigula gure estun edo kateak; Mezaen bidez itzaltzen dirala emengo galdak...

Din... Dan... *Oroi*, oroi zaifezte zuen lanbide onen nekeaz gureak arindu dezazkezuketela indulgentzien bidez, gure zof guziak ordaindu zazkezu-tela ain efax, ta *!Ai ene!* guk geren buruaz ezer eztezakegula egin.

Din... Dan... *Oroi*, oroi zaifezte zein efax iurtzi zazkezuten gure negaf-malko samiñak, ausi gure kateak, gozatu gure miñak, itzali emengo sua ta ordaindu gure zofak.

Din... Dan... *!Ai ene!* Entzun, entzun gure negaf min-miñak biotz oneko guziok ta efuki zaifezte gutaz.

Kristau maiteak, saia zaifezte ilabete guzti ontan alegin guztiaz indul-jentzi ta lan-bide on asko Garbitokiko anima gaxoen alde eskeintzen, len-baitlen zeruan zeron laguntzale izan ditzazuen.

Kalparëgi

Zer dan purgatorioa edo Garbi lekua



INISTE Santuak ta Elizako jakintsuak erakusten digutenez: inper-nua ta purgatorioa dira suzko bi itxitegi ikaragariak, mundu onta-tik edo pekatuan edo pekatuari zor dagozkan zofak kendugabe ir-ten diran animentzat.

Inpernua da Jaungoikoak bere zuzentasun zofotza miragafizko eran erakusten duan lekua; toki ikaragafi artan sartzen ditu, betiko madarikatuak

diran animak; antxe gofoto gofiakin erantzuten diote goitik kastigatzen dituen Jaungoikoari. Baño purgatorioan daudenak, anima damutuak dira, egingdako pekatuen damu bizia dutenak.



¡Zerurontz!

Ura da bere garbi lekua; an egongo dira bere animen garbitasuna irixi arte.

Baño nolako neke ta oñazetan? A! oiek adirazteko ez da mingañik ezta itzik ere. Nolabait agertzeko galde dezaiegun Elizako Santu ta Jakintsuei: *Aita S. Agustiñek dio*: Purgatorioko suaren aldean mundu onetako

surik aundiena ezer ez dala, suaren antza baizik, mundu ontako sua, *pintatua* bakarik dala.

S. Juan Krisostomok beriz erakusten digu: mundu ontan gizonak eraman leiken neke ta mingafi guztiak itzala besterik ez dala purgatorioan eramaten diran aldean.

Goratu zazute *S. Bartolome* Apostoluak lufua bizirik kentze orduan eta *S. Lorentzok* parilan bizirik efe-ta zegoanean igaroko zituan neke ta oñaze samiñgofiak, ta oyek ere antza besterik ez dira, purgatoriokoen aldean.

Ta gañera oyek guztiak gorputzeko oñazea dira baño gogo edo animakoak askoz aundiagoak dira. Au da esan diteken gaitz guztien artean nekerik aundiena ta neufitu ezin difekena; bada animak gorputzetik atera ezkerro bere Egilea ta Ontasuna gana joaten dira. Nork adierazi ba Jaungoikoaren arpegi edera ikusi gabe egoteak, ematen dien iluntasun ta naigabe miña?

Ongi esan dezakete purgatorioko animak *Jeremias* Igarle Santuak ziona: *Collocavit me in obscuris quasi mortuos sempiternos*; ipiñi ninduen Jaungoikoak leku ilunian, betiko ilak dauden lekuan.

Ez da ba afitzekoa an dauden animak ojuka egotea esana: *Miseremini mei, miseremini mei saltem vos amici mei*; efukitu zaitezte nitza, bigundu bitez zuen efayak, zuek gure adiskideak beintzat!

¿Zefgatik bada? Ongi dakitelako bere animak zeruratzeko, asko balio dutela beren otoitzak, baruak, limosnak, meza santuak; ongi dakite zuek eskeñi dezazkiokezutela Jaungoikoari anima aien aldez efosarioak, aldaren bisitak edo ikustaldiak, irabazi aldezazkezuten induljentzi guziak.

Baño oraindik geio esango dizuet: Purgatorioko animen zale batek izan zun asmaketa.

Animen ganako eskeintza edo votoa


Onen bitartez eskeintzen dira nork bere bizitza guzian egin ditzaken egiñ on ta irabazi guziak, meza, konpesatu ta Jaunartu, otoitz egiñ ta egin ditezken gauza guziak azkeneko asnaserano.

Egiñ al diteke geiago? Baita ere oraindik: eskeñitza edo voto ofen bidez eskeintzen dira il ondorean egingo dizkioten sufragio edo ordaingai guziak ta era ortan bere buruaz azturik anima gaxoetaz bakarik oroitzen da, oiek guztiak, Ama Maria'ren eskuetan jartzen ditu, Ama maite ofek animen artean banakatu ditzan.

Aita Santuak induljentzi askoz aberastu dute eskeintza edo voto ori.

Kristauaren bizkera, maitasunezko alkartza da ta gure anaitasuna ez da mundu ontan bakarik agertu bea; baita ere beste mundura irten diranean.

Izurun (*Caputcrino*)



UMEZURTZA

Umezurtza atez- atez
dabil eskean...
Ildegira (1) lotara
doa gabea.

—
Elufa mara-mara
goiko mendian,
elufa mara-mara
egun guzian.

—
Artzayak artaldean
sartu etxean
goyan txabola utzirik
eluf-tarte.

—
Sutondean otoizka
dago amona,
ezpahan pipa zafa
duela aiona.

—
Otzez dardaraz doaz
mezara andreak,
otzez dar-dar lanera
doaz gazteak...

—
Ta umezurtza atez-ate
dabil eskean...
¡Ta ildegira lotara
doa gabea...!

—
Etxe-txoko berorik
ez omen du nai,
ildegian nayago
otzez ta ernai.

—
Gau oro ilobi baten
gurutz-alboan
norbaitekin izketa
ezti-gozoa.

Gurutz oren besotan
nai loak artu,
t' eguzkiak musuka
bertan esnatu.

—Ez dato umezurtza
geigo eskera
gure efitikan jun da
nunbait bestera.

—
Oft/ale, (2) gñun ote-da
eskaletxu ura?
—Mutiko umezurtza
jun da Zerura.

—
Antxe bere amaren
obi-gañean
ilotzik arkitu det.
eluf-tarte.

—
Ta antxe lurperatu det
aman obian,
berak beti egon nai
zuan tokian...

Oftzalea atxufakin
etxera doa:
bere artean dio:
¡Mutil gaxoa!

—
Ez du elufan otzak
mutila il ziñez,
berotasunez il da
maitasun miñez»...!

.....
Eñan zabaldu da
izpar (3) ituna.
Gurasoak diote:
«¡Seme zoruna»...!

Jauregi'tar Koldobika

Mariari eskatua gauza iritxia



ANTONIO Jaunak igandero bere itzaldi txiki ta xamur-xamufa egiten zien mutil-neskai... baña oiek geldirik egon? ¡Ez alajaña! Bat burukan, au negafez, ura pafez, beste ura jolasean, ango ura atzera begira, nor sartzen zan ikusi naiez..... itz batean, alpefik Antoniok itz egiten zien.

Bein befiz azaldu zien Ama-Birjiña Kristauen laguntza edo uxilioa dala, ta nik eztakit zergatik mutil-neska guztik beregan begiak josirik zeuzkaten, eta Ama-Birjiñaren indafa adierazteko, Kondaira bat bazeukala esan zienian, gero ta pozikago gelditu ziran; txalo izugafik eman zituzten, eta guztik ixildu ziranian, ofela asi zan Antonio Jauna.

Emakume on-ona zan Joxepa Iñasi: beti elizara goiz goizetik joaten zan eta bere otoitzak egiten zituan; egunero Jauna artuta, etxera bere lanak egitera biurtzen zan. Bere senafa, befiz, gizonik gaixtorena zan, eta Joxeparen otoitzaz ifi egiten zuan; jura elizan sartu meza entzutera! ¡¡bai zera!! ez alajaña, ori sorginkeri besterik ez dek ta. Ardantegira befiz maiz joaten zan, beti zufut-zufutadaka laister moskortzen zan jordan istiluak! Joxepa-Iñaxi lotsaz betia ta mutil-koskofak moskofaren atzetik afika; egunero Jau-nari Joxepak bere senafaren on-biurtzea eskatzen zion... Seme txiki-txiki bat ere bazeukaten, Joxepak efuz maite zuena, baña jura lana! gaixotu zanian Manueltxo. ¿Zer egingo ote du Joxepak?... Bultzian (trenian) saftu ta Lourdesera dijua senafaren on-biurtzea ta bere semetxoaren sendapena kon-beni bada Ama Birjiñari eskatzera.


Izan zan Lourdes'en, baña alpefik, bere etxera biurtzen edo itzultzen zanian, len bezela arkitzen zuan bere semea ta senafa gero ta gogofagoak: «enizun nik, esaten ori sorginkeria besterik etzala?»... ta egiñaletan adafa jo-tzen zion aurfaren sendapena iritxi etzualako.

¿Zer egingo du ba gure Joxepak? Elizara joan eta Ama-Birjiñari diotsa: «bultzian (trenian) joan ta, ez didazu entzun... orain ba ofiez joango natzai-zu, ta ala ere, ezpadidazu aditzen, belauniko joango naiz».

Alaxe egin zuan, eta oso nekaturik Lourdes'era eldu zan; otoitz egin eta efegutu ondoren, bere senafari biurtu zitzaion: asaldu zitzaion bere se-nafa. esanaz «berandu ofofi aiz gure semea il den.»

Eta i?—ni Jaungoikuarengana biurtu uan! ¡¡¡Ura Joxeparen poza!!! Etzaidak ajolarik, erantzun zion, semearen eriotzagatik, zerura joana dek eta, ire gogua irabazi badiat...

Euskaldun eta irakurle maitiak; gauza asko erakusten dizkigu ipui onek. Lendabizi, eskatzen ditugun gauzetatik, ukatzen zaizkigu batzuk egoki ez diralako, Joxepa Iñaxiri gertatu zitzaion bezela; gero bein eskatu ta, ukatzen bazaigu, ez degula etsi bea, baizikan bi ta amaika aldiz eskatu bea de-



Gure "otoitzen eske

gula, nai deguna iritxi arte: Ama Birjiñak onela askotan gure on bide edo birtutea egiztatu duela.

Azkenez, euskaldun maiteak, zerbait iritxi nai badezute, zoazte Mariaren gana; atsekabeturik zaudeztenean, zoazte Mariaren gana ta berak poz-tuko zaituzte: egunero esan zaizkiozute iru Aguf Mari, ta eriotzako orduan zuen animak zerura eramango ditu ta ludi ontan beti lagundu ta zaituko zaituzte...

Tolosa'tar Marzelino Ak. O. M. Cap.






i Jesus




("Cantus Variæ Romano Seraphici" liburutik artua)

(Donostiar' J. A. Ak. asmatua)

Batzuek Oi Je - sus, oi Je - sus, ain mai - te - a mai - te -



zai tut o - so - ki ze - ru tik ni zau - ri - tu mai - te -




goz - ko az - ko - naz Zau - ri - tu ni al - den ber - tze




Batzuek o Je - sus mai - te mai - te a! Je - sus, bi - o - tzen ez - ti - a,



ur bi - zi go - gon ar - gi - a, a - lai de - nen gañ ga - ña



et a - spen gu - zi gu - zi - en.



(Guziok)

Zauritu ni...




JESUS NERI ITXOITEN

Esango ba'litzaizuke: *Jesus zuri itxoiten dago alako edo olako toki-an*, ez al da egia guziak utziko ziñuzkela ta pozez beterik, alik lastefena eta uste guzian joango ziñekela toki artara? Ez al da egia atsegin izango litzaikezukela zure gogoko lana uztea, edo iritxi naiko zenduken gauzari eskutik uztea?

Ara, ba, gogo on ori, *Jesus zuri itxoiten dago egunero elizan; jeix-ten da aldarera; eta etxoin ezezik baita otsegin ere egiten dizu bera gana joan zaitezen.*

Eta orain ere ajola gabe geldituko al zera? Ez diozu zure buruari neke apur bat emango Mezara joategatik?

· Pepitas de Oro'tik



SUGEA BEZIN BILDURGARI

Lengo ilabetean irakurri al zenduten zein dan erotegirako biderik zuzenena?

Ez al zerate oroitzen nola gutxitu ditezken eroak?

Oraingoan ere esan bearko dizutet, bada.

Gure erietako bazteretan, ez al dituzute ikusten nun-nai moskofak edo ordiak biraka eta deadarka jai-egunetan? Eta ikuskai ofek bein baño geyagotan paf-eginarazi dizute noski.

Zuei pafagafi iruditzen zaizkitzuten moskof edo ordi oyek, beren animari eta gorputzari egiten dizkioten gaitzak eta kalteak ondo ba'zenekizkizte, etzendukete paf-egingo noski.

Moskoftzen edo orditzen danak, bere animari kalte egiten dio, Jainkoaren kontrako obena edo pekatua egiten dualako; eta osoro moskoftzen danak, pekatu larria edo mortala egiten du. Eta *confesatu* gabe ilko balitz, betiko sulezera edo inpernura juan bearko luke. ¡Ora moskora pafagafia ala negafagafia dan!

Orditzen danak, bere emazteari, anai-afebai, seme-alabai kalte aundia egiten die, jateko, jantzitzeko eta egoki bizitzeko beaf duten dirua irabazten lagundu beafean alpefik gastatu egiten dielako. Erosten duten ogia ordaintzeko dirurik aunitzek ezute, beaf baño ardo geyago edaten gastatzen dutelako.

Ezta, gero, pafagafia moskora, oso negafagafia baño.

Batez ere, moskofak bere gorputzari ta bere ondorengoai beren gorputzetan eta animetan kalte aundia egiten die, ordikeria, erotegirako bide zuzenena dalako. Ara zein dan erotegirako bide bide zuzena: *Ordikeria*.

Erotzen diranetatik asko, berak edo beren gurasoak, edo aitona-amonak edarizaleak izan diralako, erotzen dira.

Mutil-koskor eta neskatx ergelak eta buru aulekoak, erdi zoroak, eufez ditugu, beren gurasoak ardo zaleegiak izan diralako. Amaika aldiz ume ga-xoak, beren gurasoen neufigabetasunak ordaintzen dituzte.

Ezta, bada moskora, pafagafizko gauza, oso negafagafia eta bildufagafia baizik.

Zuen lagun bati sugeak ozka egingo ba'lio, paf-egingo al zendukete? Edariak sugeak bezelakoak dira; sugeak bezela pozoya edo edena botatzen dute edaleen gorputzean.

Gorputzez eta buruz eta animaz sendo izan nai duenak, eta seme-alabak ere sendoak izan nai dituenak, espirituzko edari gutxi edan dezala. Ori beti gogoan euki, eta zuen umeai eta aidekoai erakutsi.

Ni enaiz ari idazten nere buruz. Jakintsuak, danak bat-eginiik diote, neufigabe edatea, osasunarentzako oso kaltegarria dala. Osasunari kalte egiteko ezta añas moskoftu beafik. Espirituzko edarieratik, moskoftu gaberik edan lezakean guztia, saritan edaten duanak ere, berea edo bere ondorengoan osasuna ufatuko du.

IZASKUN'ek



ESUSEK bein batean esan zuen: «Iñork ez dezake bi nagusiai mofoi egin, bati ezin ikusia izan eta bestea maite izango du ta: ala, baten aginduak egiten baditu besteari muker begiratuko dio. Ez dezakegu Jaungoikoari ta ondasunai mofoi egin.

Ofengatik ez kezkarik izan jango dezutenaz ta zuen gorputzaren soñekoaz? Animak ez al du janariak baño geiago balio: eta gorputza ez al da soñekoa baño geiago?

Begira zeruko egaztiai, eztu ereiten ezta ganbaran biltzen ere: eta zeruko Aitak bazkatzen ditu.


Ez al zerate zuek aiek baño geiago? Zuetako zeñek oldoztuz (pentsatuz) bere aunditasunari ukalondo bat erantsi dezakio?

Ta soñekoetaz zergatik kezkaz zaudete? Begira soroetako liliei nola azitzen diran, ez dute lanik egiten ezta iruten ere.

Nik esaten dizutet Salomon berbera bere aunditasunean etzan oietako bat bezin ondo jantzi. Bada soroko belar bat gaur bizi ta biar labera botatzen dana Jainkoak ola jazten badu: zenbat geiago siñismen gutxiko auek etzaituzte jantziko?

Ez kezkaz auxe esan: Zer jango degu, ala zer edango degu ala zerekin jantziko? Galde auek siñismen edo fede gabekoak egiten dituzte ta. Gauz oien guzien beafean zeratela Jaungoikoak ba daki-ta.

Bilatu lenengo Jaungoikoaren efeinua ta ontasuna ta auek guziak erantsiko zaizkie.» (S. Mtt. VI, 24-33.)



Ona Jesus'en itzak: Irakurlea saiatu zaite Jesus'en erakutsiak betetzen, berak agintzen dizu ta; zure Aita dan Jaungoiko guzialtsuak zaituko zaitu.

Ondasunak ta Jaungoikoaren aginduak betetzea, bi gauz oiek baten ezin izan dituzunean, utzi ondasunak, Jaunarik aberatsenak zaituko zaitu Jaunaren Legeak agintzen duana egiteagatik premia etofiko zaizula uste dezunean, ez bildurdu Jaunak zaituko zaitu.

Liliak ta txoriak baño geiago maite du Jaunak zure anima.

Ez al du Jesus maiteak zuregatik ixuri bere odola?

ARALAR





Neguko ipar-aizea

Umeeztzat

NEGUKO aize otzaren egilea, udazkeneko egu-aize epelarena bezela, Jaungoikoa da», ari zan esaten *Malen* aspuarekin bitartean suari eragiñaz. «Tira, semetxo maite oek, su ondora etofi bero bero egotera... Zu ere onuntzaxago, aifa, daukazun adiñan eztl txafik afapatu gabe».

Zeñen poliki bildu ziran su ondora «*Gorostiondo*»ko Malenen aingerutxoek: ze egoki exeri ere aifonaren ankañtean!

Ama: fi...i! aiziak.—Bai gaxua: Aize ofek zerpait esaten du. Badakizute amona gauñ ilabete luñperatu zutela. Ofa ba. Aize ori luñ bedeinkatu afi muxu emanta onuntza datofena da.—Zertara amatxo?—¿Zertara? Amonaren agindua guri ekartzera. —Amona ila eztago ba?—Bai, amona'ren gorputza ila dago azkeneguneraño; bañon, bere anima bizi da.—Non dago ba, amatxo non?—Adiyan zeruan ta adiya garbitokian. Aiziak beñepein fi...i ta fi...i esaten digu...—¿Zer amatxo zer?—«Seme-ilobatxo maiteak: nitaz oroitu»...—Aifa eñezatu ba amonagatik.

Gorostiondo'ko sukaldean olako elkañ izketa aditu bazendute, baita ere ikusiko zenduten *Joxe Iñaxio* aifon agurgafia, pipa ortzetik kendu ta txapela belaunian, Aita gurea siñismen beroarekin esaten.

Bukatu ondorean ilobatxoei itz-egin beañ izan zien, alaba bañon itzontziagoa zan ta.

Pipa efeaz onela mintzatu zan: «Aize bolada-onek eluñ ekaitza dakañen bezela, Jaungoikoaren azefea darama toki askotara.

Aize zakañ onek ezlu gure etxe ontako pakea nastuko, ez.

B año of bian, jolas etxetan ta ardotegetan, amaika neskatz ta mutiñ gazte naste-dantza zikiñetan lizunkeriaren kate nazkagafiekin estu-estu loturik darabilzki etsai mutuñ-zikiñak.

—Añona: etxe oietako leioetan ere fi...i egingo du orduan aizeak?

Fi...i?... Baita leiuak ederki astindu ta dardarituazi ere.

Jaunaren asefea da, gaxto oiek safi joko ditun Jauna'ren zigofa.

Gure *Iñaxi* gaixuak ezaldu baldinbetan berioietara bidea ikasi...

Tira, Erosariyua esan zagun gure enetxua gaiztatu eztedin.

Apaldu-ta gero, ilobatxuak oieratu ondorean ala zion *Gorostiondo*'ko nagusi zafak:

Aize boladak amuf eman du; guazen, guazen gure lotara, bederatzí terdiak dira ta.

Nere *Minñonigatik* otoitz egin degu; gure *Iñaxi* kufunagatik ere bai.

Zuen aingerutxoengatik oieratu baño len efegutu gero Ama Birjiñari, *Malen*.

Bakartegian (konbentuan) daukazun afebak badakizu beti zer idazten dizun; Zeruko Ama maitea'ren zainpean gauero semetxoak jartzeko.



Anima gaixoen Ama

—Bai aita, efegutuko degu beti bezela, erantzun zion²etxeko nagusi gazteak.

Ongi lo egin, biar afte, Jaungoikoak nai ba-du, esan zuan *Joxe Iñaxiok* eta bere oe aulfian belaunikatu ta egin zitun betiko otoitzak.

Noski ordu aſtan, Teresa santa, berak egindako Bakartegian, gauero bezela bere oatze lakatzetik *Joxe Iñaxion* alaba Karmeldafa jaiki zan eta

gorputza otz-ikaraz eta biotza bero-bero an joan zan eleizara Jaunari esatera:

«Deus in adjutorium meum intende;

Jauna neri laguntzera atoz!

Jauna zorigaitzpean daudenei laguntzera atoz!

Jauna, bekatuaren mendean bizi diranaz efukitzera atoz!

Jauna, *Gorostiondo*'ko nere ilobatxoak zaintzera atoz jatoz!»

Oyartzuna O. M. Cap

Eragozpen guztien Kentzalea



RAIN bi urteren bat, bizi zan Frantziko uri batean 27 urteko gazte bat, bulañetik galdua. Oso gaizki zegoan, egun gutxitako bizia zun. Jaungoikoaz oso aztua aspalditik, alpefik egin zituen amak egiñalak bere seme maite ura Jaungikoaganatzeko. — Etzuan siñisten gazte onek, bazenik, ez Jaungoikorik, ez animarik, ezta gero betikotasunik ere. — Etzuan bere etxean apezik ikusi nai. «Nik eztet federik; eta ofengatik. apeza neregana ekafiko banu, gezur utsa izain litzake,» zion. — Negañez etofi zitaitdan gazte zorigaiztoko añen ama, nik asmatuko ote nun bideren bat ardi galdu ari animaren betiko bitzitza emateko; gorputzeko bitzitza galdua bai zeukan ta. Gaixoari nere ikustaldi bat gaztigatzeko esan nion, baño esateko gañera, enintzala beste apezak bezela, adiskide batek egiten duen bisita besterik etzela izango. — Ala ere, amari naigaberik ez emateagatik bakafik artu ninduan, gazteañek — Zeruko Eñigñari asko eskatu ondoan, asi nintzan nere bafuen nola gazte ura onduko nuan asmatzen. — Joaten nintzaion egunero ikustera, eta beti, jolas piska baten ondotik, itzegiten giñuan gauz beretaz, baño gaixoa nekatu gabe. Poliki, poliki siñetsierazi nion, bazela anima bat eta Jaungoiko bat. Onelaxe, geldi, geldi erakutsi nai nizkion guziak, baño indafak aitzen edo bukatzen ari zitzaizkion, eta bildur nintzan ilko ote zan auroegi. — Ofengatik bada, mintzatu nintzaion Andre Mari txit garbiaz. Etzuan berak nai; baño nik esan nion oso beahezko gauza zela ura, ni oso ufutira joateko nitzala, eta oberenean gero edozeiñek zekila, gai ontaz itzegiteko tenorea izain ote giñuan. «Zuk eztuzu ezagutzen Ama on au. Ziñez ona da gero. Nik ezagutzen dut ongi, eta esan dezakezut berari laguntza eskatzen ba diozu, befiz itzuliko zaizula galdu-tako siñismen edo fedea.

Agindu bear didazu oraintxetikan, goizero ta gabero Iru Agurmariak esango diozkazula: Ala egiten badezu, ekusiko duzu nola joango zaizkizun

Eleizaz ta Jangoikoaz dituzun dudek, bion arten izaten ditugun eleketa edo jolasekin baño obeki. Baño ori nai ezpadezu aditzera emango didazu etze: ala nere adiskidea, egiari gofotoa diozula eta geroko zere animaren betiko atsegiñik ere eztuzula nairik»—«Ezpaitakit ordea Agur Maria ere esan zidan.»—Tori liburu au, bertan daukazu, irakufi, eta bereala gogora zaizu aufzarroan ikasi ziñuan guzia.

Ala egin zuan; amabost egunez, goizero ta gabero, bat utzi gabe Iru Agurmariak esan zituan. Eta egun batez, berak nai ta, oso gogoz, siñistu zituan Eliz Ama Santak siñestera agintzen dizkigun guziak. Negafez aitor-tu zituan bere utsegite guziak; biaramonean biotz-biotzetik Jauna artu zuan eta azkenik, Oliodura Santua ere bai. Etzen gerostik bi egun besterik bizi. Bietako oñaze eta eramankizunak eskein zizkien Jaungoikoari eta bere Amari lenagoko utsegite guzien orde.

Gero, Komunio baten ondotik, esan zidan: «Orain esan beaf dizut egia: Banekin asko, baño enago Jaunagandik jakinduriak aldegin, baizik nere afo-keri geyegizkoak eta aragiaren griña txafak...»

Befiz diozuet, jakintsu eta itzlari oberenak baño obeki dakila Ama Birjiñak oker dabiltzenak zuzentzen, eta Iru Agurmarien indafak garaitzen eta kentzen dituala eragozpen guztiak.

Korentin A., Misiolaria

(A. I. M. A'k. euskera itzulua.)

Seindiko batasuna



MA batek mats-mordo bat bere alabatxoari eman zion. ¡Zegoan egural-di beroakin, bai goxoa mats-mordo ura!

Anaiari ere oso atsegin izango zaiola alabari gogoratzen zayo ordea; eta bertan-bera, oso-osorik ematen dio.

Oni ere, bere aita izefdi patxetan soroan ari dala bururatzen zaio; eta ara dijao laixtefka bere mats-mordoakin.

Aitak befiz mats-mordo edef ura ikustean, ¡Amaren poza! auxe ematen ba-diot! esanaz amari emateko etxeratzen da.


Onelaxe amaren eskuetatik ateratako mats-mordo ura, befiz ere amaren eskuetara eltzen da.

Orduan amak, seindiko batasunrengatik Jaunari eskefak eman ziozkan eta matsa guziai banandu zien.

Lizartza'tar Ander Aba.



USTE-EDERA



Bein batean praile bat Prantzisko Deunaren bizitza irakurtzen ari omen zan. Gauza batek asko afitu zuen.

Bizitza ofek zionez, Jaunak gure Aitari bere zauriak ezafi zizkionean, itz batzuk esan omen zizkion ta gure Aitak, bizi izan zan bitartean, iñori ez omen zizkion olako itzak agertu.

Itz oyeak ezagutzeko sortu zitzaion jakin-naia bizia zan eta etzuen pakean uzten. «Nola jakin? «Nola ezagutu?

Jaunari eta Prantzisko Deunari eskatzen asi omen zan itz aiek, afen, agertzeko. Bi, lau, sei urte egon zan ori eskatzen, baño alpefik. Alpefik ez, zortzi urte ola igaro zituenian, Jauna xamurtu zan ta.

Goiz batean lagun batekin efira joan beaf zuela ta, etxetik atera ziranean, beste bi prailekin topo egin zuten. Bata gaztea, mardula ta bestea zafa ezuf utsetan. Itxuraz ufutitik zetozten ta nola gero? Blai-blai, loi ta lokatzez beteak.

Olako era kupigafian ikusi ituztenian, bařena sartu- araziaz, sukaldera pixkat berotze afen, eraman ziřuzten, beste praileak au zeuden ta.

Ordungo oituraz gure praileak oietako zafenari ofetan zekarkien loa kentzen asi zitzaionean. zauri bana idoro zizkion ofetan.

¡Txoratu etzanian! ¡Jesukristo edo Prantzisko zera zu! Esan zion zaurietan muxu bero-bero. k ezafiaz.

Praile zauridun ofek etxe artako praile guztiak erdi eroturik ikusi zituenan, ola itz egin zien: «Ene seme ta anai maiteak, etzazute bildufik izan, zuen aita naiz, iru ordenak jafi diřuen Prantzisko.»

«Iñork ez dakizki oraindik, zauriak artu nituen egunian, Jaunak esan zizkidan itzak.»

«Ofak garbitu dizkidan praile onek zortzi urte baditu itz ayeak agertzeko eskatzen didala.

«Ainbeste urtetan ori eskatzen aspertu ez dan ezkerro, Jaunak aginduta oraindaño ixilik euki ditudan itzak agertzea noakizue.»

Ara ba zer esan zidan egun zoragafi artan nere Jaungoiko Jaunak:

«Nere nekaldi edo pasioko ziñaleak eman dizkizut nere legea nun-nai zabaldu dezadazun. Nere eriotzako egunean linbora jetxi ta an zeuden animak zeruratu nituen. Zu ere nere antzekoa izan zaitezen, urtero zure eriotzako egunean garbileku edo purgatoriora jetxiko zera an dauzkatzun iru Ordene-tako semeak zerura ekartzera.»

¡Zer itxaropen edefa! ¡Eskubide aundia gure Aitarena! Irugafendař ori, ez al dira pozgafiak zure Aita Prantziskori aditu dizkiozun itzak? ¡Uřilaren 4! Nola itxoingo ote dute egun ori garbilekuan dauden Prantzisko'ren semeak!

T^{ar} B.